



DONOSTIAKO HIRI EKONOMIAREN BAROMETROA

PANDEMIAREN ITZALAK BALDINTZATU ZITUEN 2020AN DONOSTIAKO ENPLEGUA ETA EKONOMIA

2020an, konfinamenduak eta pandemiak Donostiako jarduera ekonomiko, kultural eta soziala baldintzatu zuten, eta ordura arteko joera positiboetako batzuk aldatu zituzten.

Garapen Ekonomikoko zinegotziak, Marisol Garmendia sozialistak, Hiri Ekonomiaren Behatokiak joan den urteari buruz egindako memoria aurkeztu du, eta hau eman du aditzera: “Donostiak ere jasan ditu konfinamenduaren eta pandemiaren ondorioak; oraindik ez dugu pandemia gainditu, nahiz eta, normaltasun pixka bat berreskuratzean, hobera egiten hasi garen. Mugikortasunaren eta gizarte-jardueraren murrizketak bizi izan ditugun hilabete gogorretan, Donostiako ekonomiak ondorioak jasan ditu. Espero dugu pixkanaka suspertuz joatea, hiria behatokiaren azken txostenek eta azken estatistikek islatzen zuten hazkunde-bidera itzul dadin”.



EKONOMIA ETA ENPLEGUA

2020an, jarduera ekonomikoa gelditu egin da, argi eta garbi. Adierazleen arabera, susperraldia datorrela dirudi, eta datorren urtean nabarmenagoa izango dela.

2020an, Donostiako barne-produktu gordina % 6,8 jaitsi da. Ekoizpen-establezimenduen kopuruak % 2.1 egin du behera, batez ere, zerbitzuen sektorean (10 ekoizpen-establezimendutatik 8 galdu dira). Balio erantsiko jarduerak eta beste batzuek, berriz, hobera egin dute. Bestalde, jarduera zientifiko-teknikoen proportzioa hau da: 4 establezimendutatik 1.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Pandemiak enpleguan ere izan du eragina. 2020an, 8.932 pertsona lanik gabe egon dira, 2019an baino 1.532 gehiago, 2014an hasitako bolada ona amaituta. "Behatokian bildutako datuen arabera, langabezia 2017ko datuetara itzuli da hirian. Hala ere, uste dugu 2022an susperraldi ekonomikoa izango dela, eta, horrekin batera, langabezia-tasak pandemia aurreko egoerara bueltatuko direla. Ezin dugu ahaztu okerrera egite hori kanpoko kausa batek eragin duela, pandemiak alegia, eta ez ekonomiak berak, ez baitzegoen krisi-egoera batean", adierazi du Marisol Garmendiak.

Langabezia-tasa % 9koa izan da Donostian; Gasteizen, % 10,8koa, eta Bilbon, % 13,4koa. Gizarte Segurantzako afiliazioa % 1,6 jaitsi da 2019aren aldean. Beste modu batean esanda, 116.037 langile afiliatu zeuden, 2019an baino 1.912 gutxiago. Nabarmendu behar dugu ERTE batean egondako langileek Gizarte Segurantzaren afiliatuta jarraitu dutela.

Zerbitzuen sektorea (106.709) enpleguaren % 92 da, ondoren eraikuntza dator (% 3,9), industria eta energia (% 3,9) eta lehen sektorea (% 0,2), -% 7arekin.

Auzoka, Intxaurrendok (% 12,7), Mirakruz-Bidebietak (% 12,4) eta Altzak (% 12,4) dituzte langabe gehien. Eta langabeziarik txikiena dutenak Miramon-Zorroaga (% 3), Igeldo (% 5,1) eta Aiete (% 7,3) dira. Emakumeen langabezia (% 53,9) handiagoa da gizonena baino (% 46,1), eta, oro har, gora egin du, batez ere gazteen artean.



BERRIKUNTZA

I+G sektoreko jarduerak 241 milioi euroko gastua ekarri dute, ia 2019koaren berdina (-% 0,1). Gastu hori Gipuzkoako guztizkoaren % 37,5 da. Enpresek (% 61,6), unibertsitateek (% 29,2) eta administrazio publikoak (% 9,2) gastu hori guztia bereganatzen dute.

5.336 pertsonak egiten dute lan horrelako jardueretan. Sektorea % 0,5 hazi da 2020an, eta horrek erakusten du Donostia erreferente gisa finkatu dela berrikuntzaren, ikerketaren eta zientziaren sektorean.

Gipuzkoako I+Gn lan egiten duten pertsona guztien % 43,7k Donostian jarduten du. Sormen-industriek (arkitektura, moda, diseinua, arte grafikoak, etab.) hirian duten pisua finkatu dute (% 18 inguru). Merkataritza elektronikoa asko handitu da. Behatokiaren arabera, 5 enpresatik 2k merkataritza elektronikoko eragiketak egiten dituzte, eta horien bolumena 1.922 milioi eurokoa da (+ % 36,8).

Prentsa oharra

Nota de prensa



MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza-sektoreko adar guztiek enplegua eta establezimenduak galdu dituzte. Donostiak 2.500 denda ditu, elikagaien sektorea nagusi izanik; atzetik, moda eta osagarriak datoz, eta, azkenik, etxeko ekipamenduak. 2019aren aldean, 122 establezimendu gutxiago erregistratu dira.

Merkataritzak 9.407 pertsonari eman die lana, -% 3,9, 2019aren aldean. Ostalaritzak 1.436 establezimendu ditu, eta 4 establezimendu baino ez ditu galdu. Hala ere, azken bost urteotan, lehen aldiz galdu dira negozioak sektore horretan. “Azpimarratu behar da administrazioek hainbat laguntza ezarri dituztela bi sektoreok babesteko, negozio eta enplegu galerak minimizatzen saiatuz”, adierazi du Garapen Ekonomikoko zinegotziak.

Hotel-ostatuak ere galera handiak izan dituzte, eta, hala, kopuruak duela 20 urtekoetara jaitسي dira. Jaitsiara hori -% 35,5etik (1-2 izarreko ostatuak eta hotelak) - % 30,1era (3 izarreko edo gehiagoko hotelak) bitartekoa izan da. 155 hotel-establezimendu daude hirian. Bidaiari-kopurua (-% 57,2) eta ostatu edo hoteletan emandako gau-kopurua (-% 61) izugarri jaitسي dira. 73 ekitaldi egin dira, pandemia aurreko urteetako 177ren aldean.



BIZTANLERIA

Donostiako biztanleriak bere horretan dirau. 2020an, 188.102 biztanle erregistratu ziren, 2019an baino 89 gutxiago bakarrik. Emakume gehiago daude (99.232) gizonak baino (88.870), eta nabarmentzekoa da biztanleriaren zahartzea: 65 urtetik gorakoak 15 urtetik beherakoak halako bi dira.

Atzerritarrak, berriz, biztanleen % 8,5 dira, bestela esan, 16.009 pertsona. Gehienak, Honduras eta Nikaraguakoak dira, eta txinatarren eta errumaniarren kopuruak atzera egin du.

2020an, heriotzak jaiotzak halako bi izan dira, pandemiagatik hildakoak barne.

Familiaren batez besteko errenta 42.408 eurokoa izan da urtean, Euskadiko batez bestekoa baino % 17 handiagoa. Gizarte-zerbitzuen eskaerak eta DSBE (diru-sarrerak bermatzeko errenta) jasotzekoak gora egin dute (+% 4,1).

Etxebizitzari dagokionez, Estatu osoko preziorik altuenak gure hirikoak dira oraindik ere: etxebizitza librearen metro karratuak 5.343 € (+% 5,4) balio du, eta etxebizitza berriaren metro karratuak, 5.662 € (+% 5,8). Alokairuari dagokionez, hileko batez bestekoa 1.217 €-koa da, 2019an baino % 3,3 gutxiago.

Prentsa oharra

Nota de prensa



MUGIKORTASUNA

Hiriko automobil-parkeak 114.968 ibilgailu zituen 2020an; horietatik % 69,8 autoak ziren, % 26,3 motozikletak eta % 2,9 kamioiak. Auto pribatua izan zen gehien erabilitako garraio-bidea: hamar pertsonatik seik aukeratu zuten beren joan-etorrietarako. Aurreko urtearen aldean, haren erabilera % 46,6 igo zen, pandemiagatik. Eta Dbus-ek bidaiari asko galdu zituen (-% 40).

laz, bizikleta bidezko joan-etorriak ugartu egin ziren (+% 14,2). Ibilgailu horietarako sareari 82 km gehitu zitzaizkion, batez beste, 4,4 km 10.000 biztanleko. Aireportuko bidaiari-kopuruak hondoa jo zuen (-% 73,8).



AUZOAK

Auzoka, batez ere Loiolan handitu da biztanle-kopurua, batik bat Txomin Eneak bizilagun berriak hartu dituelako. Beste muturrean, Altza, Gros eta Antigua dira biztanle gehien galdu dituzten auzoak. Amara Berri, Erdialdea eta Altza dira atzerriko biztanle gehien dituzten auzoak; Aiete eta Zubieta, berriz, beste herrialde batzuetatik etorritako biztanle gutxien dituztenak. Atzerriko biztanleria, batez ere, Erdialdean (+145) hazi da eta Egia (-19) eta Amara Berri (-13) auzoetan behera egin du.

Auzoetako batez besteko adina 46,2 urtekoa da. Grosek eta, batez ere, Landarbasok 49 urte baino gehiagoko batez bestekoa dute, eta Miramon-Zorroagak, Aietek eta Loiolak, 42 urtekoa.

Auzo guztietan, langabezia-tasak okerrera egin du. Hiriko ekialdea da indizirik altuenak dituenena, kasuren batean % 13tik hurbil egoteraino, eta gainerako aldeak, neurri handi batean, hiriko batez bestekoaren azpitik daude.

Erdialdean denda asko galdu dira (-48), baina 13 ostalaritza-establezimendu ireki dira. Amara Berri 22 txikizkako establezimendu galdu ditu, eta Grosek, Antigua Ondarretak eta Bidebietak, berriz, 11.

2018ko datuen arabera, hauek dira familiako errentarik handiena duten auzoak: Miramon-Zorroaga (90.011 €), Aiete (55.107 €) eta Antigua (52.621 €). Altzak, berriz, errentarik txikiena du (30.383 €). Hiriko batez besteko errenta 42.408 euro dira.